# Bestelako Xedapenak

## ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

**4364**

AGINDUA, 2009ko uztailaren 22koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, 2009ko abenduaren 31ra arte etxebizitza birgaitzeko ezohiko finantza-neurriei buruzkoa.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2006ko abenduaren 29ko Aginduak (2007ko urtarrilaren 25eko EHAA, 18. alea) etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriak arautzen ditu. Neurri horiek finantzazio kualifikatua eskuratzean -zehazki, maileguak baldintza berezietan eskuratzean- eta itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak Agindu honetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten birgaitze-jardun babestuen titularrak diren pertsonei ematean oinarritzen dira.

Baina Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren arabera, beharrezkoa da 2006ko abenduaren 29ko Aginduan aurreikusitako neurriak nabarmen hobetuko dituzten hainbat ezohiko neurri ezartzea. Neurri horiek bi helbururekin sortu dira: batetik, krisi ekonomikoari, langabezi-tasa altuari eta eraikuntzaren alorreko jarduera-tasa baxuari aurre egitea, eta bestetik, gure etxebizitza-parkearen eta bertan bizi diren pertsonen bizi-kalitatearen hobekuntza sustatzea.

Diru-laguntzen atala honako hauei buruzkoa da: babes daitekeen aurrekontuaren itzuli beharrik gabeko laguntzak jaso ditzaketen ehunekoen handiagotzea, birgaitze isolaturako funts publikoen gehieneko mugak handiagotzea birgaitze integraturakoen pareko izatea lortu arte, eta azkenik, 21.001-35.000 euroko diru-sarrera haztatuak dituzten pertsonak diru-laguntza horien onuradun gisa sartzea.

Horrekin guztiarekin batera, Jabeen Erkidegoei ematen zaien zuzeneko diru-laguntzaren gehieneko muga orokorra handitzea ere barnean hartzen du horrek; izan ere, gehieneko muga hori 1.000 euroko zenbatekora arte handi daiteke, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 200. artikuluan adierazitako etxeak eta eraikinak aldian behin ikuskatzearen ondoriozko txosten teknikoak egiteari dagozkion lanbide-ordainsarien kostuak ordaintzeko.

Finantzazio kualifikatuari dagokionez, estaldura hori are gehiago handiagotzen da; horrela, urteko 35.000 euroko diru-sarrera haztatuak gainditzen ez dituzten birgaitze-jardun babestuen titularrei ere iristen zaie finantzazio hori.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

**4364**

ORDEN de 22 de julio de 2009, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, de medidas financieras extraordinarias para rehabilitación de vivienda hasta el 31 de diciembre de 2009.

La Orden de 29 de diciembre de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 18, de 25 de enero de 2007, regula las medidas financieras para rehabilitación de vivienda. Estas medidas consisten en el acceso a una financiación cualificada, concretamente a préstamos en condiciones especiales, y en la concesión de subvenciones a fondo perdido en favor de las personas titulares de las actuaciones protegidas de rehabilitación que cumplan los requisitos previstos en dicha Orden.

Sin embargo, el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes considera necesario establecer una serie de medidas extraordinarias que mejoren sustancialmente las previstas en la Orden de 29 de diciembre de 2006. Estas medidas nacen con un doble propósito: por una parte, el de luchar contra la crisis económica, el elevado nivel de desempleo y la baja tasa de actividad en el sector de la construcción y, por otra, el de impulsar la mejora de nuestro parque de viviendas y la calidad de vida de las personas que las habitan.

En el apartado de subvenciones, se centran en el incremento de los porcentajes del presupuesto protegible susceptibles de recibir ayudas a fondo perdido, en la elevación de los topes máximos de financiación pública para la rehabilitación aislada hasta hacerlos coincidir con los de rehabilitación integrada y en la incorporación como beneficiarias de las personas cuyos ingresos ponderados se encuentran comprendidos entre los 21.001 y los 35.000 euros.

A todo ello se añade la elevación del tope máximo general de la subvención directa que se concede a las Comunidades de Propietarios, tope máximo general que incluso puede verse incrementado hasta en 1.000 euros para cubrir el coste de los honorarios profesionales correspondientes a la elaboración de los informes técnicos derivados de la inspección periódica de construcciones y edificaciones a que se refiere el artículo 200 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

En lo que a la financiación cualificada se refiere, la cobertura se extiende hasta alcanzar a los titulares de actuaciones protegidas de rehabilitación cuyos ingresos anuales ponderados no excedan de 35.000 euros.

Agindu honen helburua beraz, ezohiko neurri horiek martxan jartzea da; neurriak aldi baterako iango dira, 2009ko abenduaren 31n amaituko da bere indarraldia.

Horren ondorioz, hau

XEDATU DUT:

***Artikulu Bakarra.***– 1.– Salbuespen gisa, eta Agindu honen indarraldiak dirauen bitartean, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2006ko abenduaren 29ko Aginduan aurreikusitako finantza-neurrien diru-sarreren baldintzak, zenbateko orokorrak eta gehieneko mugak hurrengo idatz-zatietan ezarritakoak izango dira.

2.– Urteko 35.000 eurora arteko diru-sarrera haztatuak dituzten birgaitze-jardun babestuen titularrei finantzazio kualifikatu horiek emango zaizkie.

3.– Diru-laguntzen zenbateko orokorrak honako hauek izango dira:

La presente Orden se dicta con el fin de poner en marcha esta serie de medidas extraordinarias, que tienen un carácter temporal y cuya vigencia concluirá el 31 de diciembre de 2009.

En su virtud,

DISPONGO:

***Artículo único***.– 1.– Con carácter extraordinario, durante el periodo de vigencia de esta Orden, los requisitos de ingresos, las cuantías generales y los topes máximos de las medidas financieras previstas en la Orden de 29 de diciembre de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre medidas financieras para rehabilitación de vivienda, serán los dispuestos en los apartados siguientes.

2.– La financiación cualificada se extenderá a los titulares de actuaciones protegidas de rehabilitación cuyos ingresos anuales ponderados alcancen hasta 35.000 euros.

3.– Las cuantías generales de las subvenciones serán:

| Diru-sarrera haztatuak | Bizikidetza-unitateko kide kopurua | 1. eta 2. mailetako obrak | 3. mailako obrak | 4. mailako obrak |
|---|---|---|---|---|
| 9.000 eurora bitarte | 3 edo gutxiago | B. In. % 35<br>B. Is. % 35 | B. In. % 40<br>B. Is. % 40 | B. In. % 15<br>B. Is. % 15 |
| | 3 baino gehiago | B. In. % 40<br>B. Is. % 40 | B. In. % 45<br>B. Is. % 45 | B. In. % 20<br>B. Is. % 20 |
| 9.001-15.000 euro | 3 edo gutxiago | B. In. % 30<br>B. Is. % 30 | B. In. % 35<br>B. Is. % 35 | B. In. % 10<br>B. Is. % 10 |
| | 3 baino gehiago | B. In. % 35<br>B. Is. % 35 | B. In. % 40<br>B. Is. % 40 | B. In. % 15<br>B. Is. % 15 |
| 15.001-21.000 euro | 3 edo gutxiago | B. In. % 25<br>B. Is. % 25 | B. In. % 30<br>B. Is. % 30 | B. In. % 5<br>B. Is. % 5 |
| | 3 baino gehiago | B. In. % 30<br>B. Is. % 30 | B. In. % 35<br>B. Is. % 35 | B. In. % 10<br>B. Is. % 10 |
| 21.001-27.000 euro | 3 edo gutxiago | B. In. % 20<br>B. Is. % 20 | B. In. % 25<br>B. Is. % 25 | B. In. % 5<br>B. Is. % 5 |
| | 3 baino gehiago | B. In. % 25<br>B. Is. % 25 | B. In. % 30<br>B. Is. % 30 | B. In. % 5<br>B. Is. % 5 |
| 27.001-35.000 euro | 3 edo gutxiago | B. In. % 15<br>B. Is. % 15 | B. In. % 20<br>B. Is. % 20 | B. In. % 5<br>B. Is. % 5 |
| | 3 baino gehiago | B. In. % 20<br>B. Is. % 20 | B. In. % 25<br>B. Is. % 25 | B. In. % 5<br>B. Is. % 5 |

| *Ingresos ponderados* | *Número de miembros unidad convivencial* | *Obras niveles 1 y 2* | *Obras nivel 3* | *Obras nivel 4* |
|---|---|---|---|---|
| *Hasta 9.000 euros* | *3 o menos* | *R I 35%*<br>*R A 35%* | *R I 40%*<br>*R A 40%* | *R I 15%*<br>*R A 15%* |
| | *Más de 3* | *R I 40%*<br>*R A 40%* | *R I 45%*<br>*R A 45%* | *R I 20%*<br>*R A 20%* |
| *Desde 9.001 euros hasta 15.000 euros* | *3 o menos* | *R I 30%*<br>*R A 30%* | *R I 35%*<br>*R A 35%* | *R I 10%*<br>*R A 10%* |
| | *Más de 3* | *R I 35%*<br>*R A 35%* | *R I 40%*<br>*R A 40%* | *R I 15%*<br>*R A 15%* |
| *Desde 15.001 euros hasta 21.000 euros* | *3 o menos* | *R I 25%*<br>*R A 25%* | *R I 30%*<br>*R A 30%* | *R I 5%*<br>*R A 5%* |
| | *Más de 3* | *R I 30%*<br>*R A 30%* | *R I 35%*<br>*R A 35%* | *R I 10%*<br>*R A 10%* |
| *Desde 21.001 euros hasta 27.000 euros* | *3 o menos* | *R I 20%*<br>*R A 20%* | *R I 25%*<br>*R A 25%* | *R I 5%*<br>*R A 5%* |
| | *Más de 3* | *R I 25%*<br>*R A 25%* | *R I 30%*<br>*R A 30%* | *R I 5%*<br>*R A 5%* |
| *Desde 27.001 euros hasta 35.000 euros* | *3 o menos* | *R I 15%*<br>*R A 15%* | *R I 20%*<br>*R A 20%* | *R I 5%*<br>*R A 5%* |
| | *Más de 3* | *R I 20%*<br>*R A 20%* | *R I 25%*<br>*R A 25%* | *R I 5%*<br>*R A 5%* |

Oharra: B. In: birgaitze integratua

B. Is: birgaitze isolatua

4. mailako obretarako diru-laguntzak, birgaitze integraturako, nahiz birgaitze isolaturako, diru-laguntza guztira kalkulatzeko beste kontzeptuengatik lortutakoari gehituko zaio.

4.– Birgaitze integratuko zein birgaitze isolatuko edozein jardunetarako, gehieneko mugak honako hauek izango dira:

Nota: R I: Rehabilitación Integrada

R A: Rehabilitación Aislada

La subvención obtenida por las obras 4, tanto para la Rehabilitación Integrada como para la Rehabilitación Aislada, se sumará a la obtenida por otros conceptos para la estimación de la subvención total.

4.– Los topes máximos para cualquier actuación, tanto de rehabilitación integrada como de rehabilitación aislada, serán:

| 1. eta 2. mailetako obrak<br>*Obras 1 y 2* | 3. mailako obrak<br>*Obras 3* | 4. mailako obrak<br>*Obras 4* |
|---|---|---|
| 5.500 euro | 5.940 euro | 2.200 euro |

5.– Jabeen Erkidegoetarako zuzeneko diru-laguntzen gehieneko muga (9.7 artikuluan ezartzen da), 3.000 euro izango dira kasu guztietan. Bestalde, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 legearen 200. artikuluan adierazitako etxeak eta eraikinak aldian behin ikuskatzetik datozen txosten teknikoak idazteari dagozkion lanbide-ordainsarien kostu-

5.– El tope máximo de la subvención directa a las Comunidades de Propietarios que se establece en artículo 9.7 será, en todo caso, de 3.000 euros. Para el caso de actuaciones protegibles en las que la Comunidad de Propietarios haya incurrido en costes por honorarios de redacción del informe técnico derivado de la inspección periódica de construcciones y edificaciones a que se re-

ak ordaintzeko Jabeen Erkidegoak gasturik izan duen kasuetan, babes daitezkeen jardunetarako gehieneko muga ere handiagotu egingo da; horrela, ordainsari horien % 100era bitarteko estaldura izango du, 1.000 euroko gehieneko mugarekin.

XEDAPEN IRAGANKORRA

2009ko ekainaren 5etik aurrera aurkeztu diren etxebizitza birgaitzeko diru-laguntzen eskabideei aplikatuko zaie Agindu hau.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik 2009ko abenduaren 31ra bitarte egongo da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 22a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

fiere el artículo 200 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, este tope máximo se incrementará con la cobertura de hasta el 100% de dichos honorarios, con un tope máximo de 1.000 euros.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

La presente Orden será de aplicación a todas aquellas solicitudes de ayudas a la rehabilitación de vivienda presentadas a partir del día 5 de junio de 2009.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden estará en vigor desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco hasta el 31 de diciembre de 2009.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de julio de 2009.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.